

LAKUNTZA

Udal aldizkaria
18. zenbakia, 2009ko martxoan

Lege gordailua:
NA-1458/2003

Argitaratzalea: LAKUNTZAKO UDALA - Herriko plaza z/g - LAKUNTZA 31830 - tel. 948-576 015
fax 948 567260 - www.lakuntzakoudala.com - posta elektronikoa: info@lakuntzakoudala.com



Udaletxeko zahaberritzeko lanak egiteko, udal zerbitzuak lekuz aldatuko dira

Estatu Funtsa, udaletxea berritzera bideratuko da.

Lakuntzako Udalak udaletxea zahaberritzea erabaki du. Udal eraikina egoera kaxkarrean aurkitzen da, bai estruktura aldetik eta baita instalazioen aldetik ere. Hori dela eta, Enplegurako Toki Inbertsioaren Estatu Funtseko diru-laguntza Udaletxea zahaberritzera bideratuko da.

Lanak apirilean hasiko dira eta proiektuaren arabera 2010eko lehenengo hiruhilabeterako despe dituko dituzte. Bitartean, udal zerbitzuak lekuz aldatuko dira.

ZERBITZUEN LEKUALDAKETA

Udal bulegoak herriko enparantzian dagoen Apezaren Etxera lekualdatuko dira. Apezaren etxeko behoko solairuan dauden bi gelak erabiliko dira administrazio zerbitzua emateko.

Medikuaren kontsulta Lakuntzan geratuko da. Mikel Arregi kaleko 35. zenbakian.

Gure Nahia jubiletuen elkartea "Kale Txiki" tabernara lekualdatuko da.

Correos zerbitzua Euskadiko Kutzaren atzekaldeko lokalera lekualdatuko da.

Udal liburutegia itxita egonen da lanak luzatu bitartean.

Ikastaroak maiatza arte jarraituko dute: **pintura eta eskulananak** ikastaroak eskola laboraletan egokituko den gela batera lekualdatuko dira eta **lentzeria** ikastaroak Kale Txiki tabernan jarraituko du.



Udal bulegoak Apaizaren etxera lekualdatuko dira.

CAMBIO DE UBICACIÓN DE LOS SERVICIOS DEBIDO A LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN DEL AYUNTAMIENTO

El Ayuntamiento de Lakuntza ha decidido rehabilitar la casa consistorial. Las obras comenzarán en abril y finalizarán el primer trimestre de 2010.

Así pues, los servicios que se ofrecían en la casa consistorial, cambiarán de ubicación. Las oficinas municipales pasarán a la Casa del Cura. La Asociación de Jubilados, al bar Kale Txiki. Las Oficinas de Correos al local situado detrás de la Caja Laboral. Los cursos de pintura y manualidades se impartirán en las Escuelas Laborales y lencería en el bar Kale Txiki. La biblioteca estará cerrada hasta la finalización de las obras.



La consulta del médico estará en el nº 35 de Mikel Arregi

2009ko aurrekontuak

Aurtengo aurrekontuak prestatzeko orduan ondoko irizpideak hartu ditugu kontuan: zuhartzia, aurrekontuko superabitza eta gobernu taldearen programa garatzea.

ZUHARTZIA

Ekonomia-perspektibak ezezkorrrak direnez, aurrekontuak tentuz prestatu ditugu.

Diru-sarrerei dagokienez, beraiz, ohiko diru-sarrerak %14 gutxitzea izan da hartutako erabakia.

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineke zergaren (ICIO) %80ko jai-tsiera.
- Hirigintza aprobetxamenduko %10eko diru-sarrerak aintzat ez hartzea.
- Zabor isurketen diru-sarrera kopurua mantendu, zabortegiko tasak bikoitzu diren arren.
- Gastuei dagokienez**, saiatu gara ohiko gastua mantentzen. Horrela, %1 baino gutxiago hazi dira.
- Langileen gastua %7,75 hazi da (garbitzaileen kontratu).

- Ohiko ondasun eta zerbitzuen gastua %9,92 jaistea (garbitasun zerbitzua kendu eta mantenimendu zerbitzua jaitsi).
- Transferentzien gastua 15,46 handitu da (Mankomunitatearen igoraren ondorioz).

GOBERNU PROGRAMA GARATZEA

Inbertsio politikarekin aurrera egiteko bidea ematen digu aurrekontuen superabitak. Hala, 2009. urterako ondoko inbertsio hauek aurreikusiak daude:

- **Haur eskola.**
- **Udaletxearen zaharberritzea.**
- **Hirigintza Planaren berrikuspena:** 103.000,00 euro. Nafarroako Gobernuak %80 emango du, 82.400,00 euro, eta udalaren deficitza 20.600,00 eurokoa izamen da.
- **Zinea:** Egin beharreko lana 600.000,00 eurotik gorakoa da eta Etxebizitza Ministerioak %100ean finantzatuko du. Obraren zuzendaritza lana Udalak hartu beharko du bere gain.



Ekonomia-perspektibak ezezkorrrak direnez, aurrekontuak tentuz prestatu ditugu.

Presupuestos 2009

Los criterios principales aplicados a la hora de elaborar los presupuestos del 2009 han sido los de prudencia, superávit presupuestario y desarrollo del programa de gobierno.

PRUDENCIA

Dado que las perspectivas económicas son bastante negativas, hemos optado por la elaboración de unos presupuestos prudentes.

Por la parte de los **ingresos** eso se traduce en una disminución de los ingresos corrientes presupuestados en un 14%:

- Reducción del 80% de los ingresos por Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO).
- Eliminación de los ingresos por el 10% de aprovechamiento urbanístico.
- Mantenimiento de los ingresos por tasa de vertidos a pesar de haber duplicado la tasa.

En cuanto a los **gastos**, hemos procurado mantener una contencción en el gasto corriente incrementándose por debajo del 1%:

- Incremento del 7,75% del gasto de personal (contratación para limpieza).
- Disminución del 9,92% del gasto en bienes corrientes y servicios (eliminación del servicio de limpieza y reducción de mantenimientos).
- Incremento de 15,46% del gasto en transferencias (por subida de gasto de la mancomunidad).

EAko hiru zinegotziek dimisioa aurkeztu dute

Sokorro Artieda Floresek eta Joseba San Sebastian Gaztelumendi dimisioa aurkeztu du. Jakina denez, iazko martxoan Izaskun Leiza Arozenak dimisioa aurkeztu zuen ere. Junta Elektoralari dimisioaren berri eman zitzaion, baina ordezkoez ez dute kargua hartu. Hori dela eta, Lakuntzako udalak 9 zinegotzi izan beharrean 6 zinegotzi dituela esan daiteke.

Gauzak horrela, Lakuntzako Udalak berriz jakinarazi beharko dio Junta Elektoralari dimisioen berri. Horrek, Junta Elektoralak, EAko hautagaien zerrendako hurrengo zinegotziaiei bidaliko dizkie kredentzialak kargua hartzeko; kasu honetan, María Elena Cercadillo Marquési eta Pedro Miguel Mangado Cortesi.

DESARROLLO DEL PROGRAMA DE GOBIERNO

El superávit presupuestario nos permite continuar con una política de inversión fuerte. Para el año 2009 están previstas las siguientes inversiones:

- **Escuela infantil.**
- **Rehabilitación del Ayuntamiento:** incluye el tejado, la carpintería externa y el ascensor.
- **Revisión del plan urbanístico:** 103.000 euros financiados en un 80% por el Gobierno de Navarra (82.400,00 euros) con un déficit de 20.600,00 euros.
- **Cine:** la obra a ejecutar es por un valor superior a 600.000,00 euros financiados en un 100% por el Ministerio de Vivienda. El Ayuntamiento se hace cargo de la dirección de obra.



Udal berria osatu zeneko argazkia.

TRES CONCEJALES DE EA HAN PRESENTADO SU DIMISIÓN

Sokorro Artieda Flores y Joseba San Sebastian Gaztelumendi han dimitido de su cargo de concejal. El año pasado Izaskun Leiza Arozena dimitió, pero los siguientes candidatos de la lista no han hecho posesión del cargo. Así pues son tres los cargos que están vacantes.

Hautagaien kargua hartzen badute, ohikoak diren tramiteak egin beharko lituzkete: ondasunen aitorpena egin eta zinegotzi kargua udal bilkuruan hartu.

Hauteskunde kanpainan, Eusko Alkartasuna taldeak “herriaren alde lan egiteko konpromisoa” hartuko zuela zioen. Legegintzaldiaren bi urte hauetan Lakuntzako Udal praktikan, 6 zinegotziz osatua egon da. Dimititzeko erabakia hartzeko egon litezen arrazoi pertsonalak ulertu eta errespetatzen ditugu, baina non dago EA talde politikoa? Ez al du Lakuntzarentzat proiektu bat? Zer gertatuko litzateke hauteskundeen emaitzak ezberdinak izan balira? Ezker abertzalea hauteskundeetara aurkeztea debekatu izan balute egingo zuten lana?

Lakuntzaren alde lan egiteko daukagun konpromisoa berresten dugu eta EAri deia egiten diogu herriak eman dizkien zinegotzi karguak hartu ditzan. Elkarlanean aritzeko ateak zabalik izaten jarraitzen ditugu.

Durante la campaña electoral, el grupo político de EA manifestó su “intención y compromiso para TRABAJAR por el pueblo”, palabras textuales de campaña. Durante estos dos años de legislatura, el Ayuntamiento de Lakuntza prácticamente ha estado formado por los 6 concejales independentistas. Podemos entender y respetamos las razones personales que han podido llevar a dimitir, pero ¿dónde está el grupo político de EA? ¿No tiene un proyecto para Lakuntza? ¿Qué hubiera pasado si los resultados electorales hubieran sido diferentes? ¿Acaso esperaban que prohibieran presentarse a la izquierda abertzale para “trabajar” por el pueblo?

Nos reafirmamos en nuestro compromiso de trabajar por Lakuntza y hacemos un llamamiento a EA para que asuman su responsabilidad y coja los cargos que el pueblo les ha dado. Nosotros seguimos abiertos a trabajar conjuntamente.

Jose Ramon Garin Lizarraga, Ricardo Palacios Andueza, Juan Carlos Romero Piñas, Jose Manuel Azpiroz Armendáriz, Jon Miranda Lazkoz, Oihane Uribe-etxeberria Garmendia. Hautetsi independentistak



2009. urteari begira

0-3 zentroa Arbizun eginen da



Lakuntza eta Arbizuko Udalek elkarlanean, 0-3 zentroa eraikitzeko proiektua martxan dute. Proiektua bukatzen ari dira eta 2009an Hezkuntza Departamentuak zentro hauek eraikitzeko argitaratzen duen dirulaguntza deialdian sartuko da. Zentroa azkenik Arbizun kokatuko da eta espero da lanak aurten hastea.

CENTRO 0-3 SE UBICARÁ EN ARBIZU

Los ayuntamientos de Lakuntza y Arbizu están trabajando conjuntamente para la creación de un centro 0-3 años que finalmente se ubicará en Arbizu. La redacción del proyecto está a punto de finalizar, y una vez finalizado se presentará a la convocatoria de subvenciones. Se espera que las obras comiencen este año.


Hirigintza plana berritzeko hitzarmena sinatu du Udalak Nafarroako Gobernuarekin

Hirigintza plana aurrera eramateko parte hartzeko plan espezifikoa martxan jarri nahi du Udalak.

Lakuntzako Udalak eta Nafar Gobernuak hirigintza plana berritzeko hitzarmena sinatu du. Hirigintza plana berritzeko erredakzio ekipoaren adjudikaziorako oinarriak idazten ari da Lakuntzako Udalak. Adjudikazioa hilabete gutxi barru egitea espero da. Hirigintza plana aurrera eramateko parte hartzeko plan espezifikoa martxan jarri nahi du Udalak.

NUEVO PLAN URBANISTICO

El Ayuntamiento ha firmado un convenio con el Gobierno de Navarra para la renovación del Plan Urbanístico de Lakuntza. En estos momentos el Ayuntamiento está redactando las normas para la adjudicación de la redacción del Plan. Se creará un plan específico de participación para la redacción del nuevo Plan.





2009/2012 urteetako inbertsio plana

Nafar Gobernuko Tokiko Administrazioak ateratako 2009-2012 inbertsio planean Lakuntzako Udalak 4 proiektu sartu ditu: udallexearen lehenengo solairuko berrikuntza, herriko enparantza berritzea, hilerria handitzea eta partzelarien bideak konponztea.

Proiektuak aurkezteko epea martxoaren 3an bukatu zen eta ebatzen ekaina inguruau egingo du Nafarroako Gobernuak.



PLAN DE INVERSIONES 2009/2012

Son cuatro los proyectos que el Ayuntamiento de Lakuntza ha presentado al Plan de Inversiones 2009/2012 del Departamento de Administración Local del Gobierno de Navarra: el proyecto de rehabilitación del primer piso del Ayuntamiento; el proyecto de renovación de la Herriko Plaza; el proyecto de ampliación del cementerio municipal; y por último, el proyecto para arreglar los caminos de la parcelaria.

Los proyectos fueron presentados dentro del plazo y la resolución será en junio. Una vez que el Gobierno de Navarra haya resuelto, el Ayuntamiento sabrá con qué ayudas cuenta para acometer los proyectos.



2009. urteari begira

Apirilean hasiko dira udaletxea berritzeko lanak

Udaletxea berritzeko lanak apirilean hasiko dira eta 2010. urteko lehenengo hiruhilabean despedituko dira.

Eingo diren lanak hauek izanen dira: teilatuaren berritzera, fatxada eta leiho berriak jartza eta barruko estruktura guztia berritza. Lehenengo pisuko forjatua ongi dagoenez, bertan geldituko da. Mugikortasuna errazteko, igogailua paratu da udaletxean.

UDALETXE BERRIAREN ANTOLAKETA SOLAIRUZ SOLAIRU

Udaletxea berritzen denean **beheko solairuan**, orain arteko zerbitzuak egonen dira bertan: ezkerraldean medikuaren konulta eta eskuinaldean herriko jubilatuendako loka-la. Udal biltzegi batentzat tokia ere geratuko da.

Lehenengo solairuan administrazioa kokatuko da: idazkaritza, alkabetza, harrera gunea, artxiboa, batzar aretoa, korreosen bulegoa, gizarte zerbitzue-tako langileentzako gela eta komunak.

Bigarren solairuan komunak, erabilera anitzetarako 3 gela eta erabilera anitzeko gela handi bat kokatuko da.

Eta, **hirugarren pisuan** edo ganbaragoikoan, erabilera anitzeko gela handia.

AURREKARIAK

Lakuntzako Udalak erabaki du udaletxea goitik behera konpontzea. Baino, hasiera batean, igogailua jarri, teilatua konpondu, leihoak berritu eta fatxada konpondu eta margotzea zen asmoa.

Iaz, proiektua egin eta Nafarroako Gobernuari diru laguntza eskatu zitzaison. Lanek 280.000 euroko aurrekontua zuten eta Nafarroako Gobernuak 112.821 euroko diru laguntza eman zuen. Lanen deialdia egin zen, bai ta adjudikatu ere Leitzako Gorriz enpresari. Izan ere,

bera izan zen eskaintzarik onena egin zuena, hasierako aurrekontua %21 merketuz.

Igogailua jartzeko egitasmoa ere iaz landu zen. Proiektuaren aurrekontua 65.000 eurokoa izan zen eta Gizarte Ongizate Departamentuak 17.000 euroko diru-laguntza agindu zuen. Lakuntzako Irumendi enpresa izan zen lanaren hartzalea.

Pauso horiek eman eta gero etorri zen Espainiako Gobernuaren Enplegurako Toki Inbertsioaren Estatu Funtsaren dirua zertara bideratu erabaki beharra. Eta ikusi-

rik udaletxe barruko egoera ez zela egokia, erabaki zen Estatu Funtsa erabiltzea uala zaharberritzera. Izan ere, udaletxea egoera kaxkarrean zegoen, bai estruktura aldetik, baita instalazioen aldetik ere. Lehenengo solairuko bulegoak txikiak ziren eta eskailera eta komunak egoera txarrean zeuden. Gainera, bigarren solairuko forjatua erortzeko arriskua zuen.



HAINBAT TRAMITAZIO

Horrela, udalak Espainiako gobernuaren Enplegurako Toki Inbertsioaren Estatu Funtsaren bidez 199.997 euroko diru laguntza eskaera egin du (BEZA barne). Diru horrekin eraikinaren 2. eta 3. pisuko forjatuak egin, eskailera berritu eta bigarren planta egitea aurreikusten da. Lehen solairuko udal bulegoak egiteko Nafarroako Gobernuko Toki Administratziora joko du udalak diru laguntza eske, inbertsio berrien atalaean laguntza eskatzen.

Behealdean dagoen jubilatu-en egoitzaren ampliazioa egiteko ere diru-laguntza eskaera egingo du Nafarroako Gobernuko Gizarte-Ongizate Departamentuan. Diru-laguntza jasoz gero lanak eginen dira, bestela aurreragorako utziko dira.

Gauza bat bestearen atzetik etorri denez, tramite asko egin beharko dituzte, baina diru laguntzak jasoko dituzten ustea du Udalak.





Udaletxea hustutzeko
lanak auzolanean egin dira.

Todo está a punto para que comiencen las obras de remodelación del ayuntamiento

Las obras de remodelación comenzarán en abril y terminarán el primer trimestre de 2010. Se renovará el tejado, la fachada, las ventanas y toda la estructura interior. El forjado del primer piso, al estar en buen estado, se mantendrá el actual.

La nueva casa consistorial tendrá una organización parecida a la actual. Sobre todo en la planta baja, pero se adecuará mejor a las necesidades de la población.

Así pues, la **planta baja** albergará la consulta del médico y el Club de Jubilados. Y se adecuará también una sala como almacén.

En el **primer piso** se ubicará la administración local: secretaría, alcaldía, sala de recepción, salón de plenos, archivo, servicios, oficina de correos y despacho para la trabajadora social.

En el **segundo piso** habrá

una gran sala, tres salas de usos múltiples y los servicios.

Se elevará la altura del edificio para lograr que el tercer piso sea más amplio. Así pues, en el **tercer piso** habrá una gran sala de usos múltiples.

Una vez finalizadas las obras, para facilitar la movilidad de las personas, se instalará un ascensor.

PASOS PREVIOS

En un principio la idea del Ayuntamiento era instalar un ascensor, arreglar el tejado, renovar ventanas y arreglar y pintar la fachada.

Para llevar a cabo las mejoras se requerían 280.000 euros. El proyecto fue redactado y presentado al Gobierno de Navarra, y se obtuvo una subvención de 112.821 euros. Las obras fueron adjudicadas a la empresa de Leitz Gorri, que ofertó un 21%

más barato.

Por otra parte la instalación del ascensor, se requería un presupuesto de 65.000 euros y se obtuvo una subvención de 17.000 euros por parte del Departamento de Bienestar Social. Esta obra fue adjudicada a la empresa lakuntzarra Irumendi.


Pero el estado de la estructura del edificio no está bien. Las oficinas se habían quedado pequeñas, las escaleras y los servicios estaban en mal estado, así como el forjado del segundo piso. Además en la mayor parte del segundo piso no había calefacción, con lo que el Ayuntamiento decidió que era mejor llevar a cabo la remodelación completa del edificio. Además surgió la posibilidad de financiación a través del Fondo Especial del Estado para la Dinamización de la Economía y el Empleo.

Así, el Ayuntamiento de Lakuntza ha solicitado 199.997 euros de subvención al Fondo del Estado para la Inversión Local. Con esa partida se pretende sufragar el forjado del 2º y 3º piso del edificio, la renovación de las escaleras y la segunda planta del edificio.

Para sufragar los gastos del primer piso, el Ayuntamiento solicitará ayuda al Departamento de Administración Local. Por el contrario, para la ampliación del Club de Jubilados el Ayuntamiento solicitará ayuda al Departamento de Bienestar Social. En caso de que el Gobierno de Navarra de subvención, se llevará a cabo la obra, en caso contrario no.

Son muchos los trámites que se están llevando a cabo, pero el objetivo del Ayuntamiento es lograr el mayor número de subvenciones.

2009. urteari begira



Parte hartuz 2009

Herritarren parte hartza tentu handiz egin beharreko bidea da: horrela, herritarren parte hartza bultzatzeko, helburu zehatzak jarri behar dira; baina, era berean, ongi neurtu behar dira jarritako helburu horiek egokiak diren ala ez, herritarrak neka ez daitezen.

Hala, aurtengo asmoen artean bi proiektu zehaztu dira. Batetik, Hirigintza Plan berria modu parte hartzale batean diseinatzea. Horretarako ondoko galdera hauen inguruan ausnartuko dute: Nolako Lakuntza nahi dugu hemendik eta 20 urtera? Nolako industria eramua nahi dugu? Zer herri mota nahi dugu?

Herriko plazaren berritzea izanen da parte hartzearekin landuko den beste egitasmoa: plazaren diseinua eta oinarrizko ezaugarriak zehazteko.

PLANIFICACIÓN PLAN DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA

La participación ciudadana es un camino a recorrer, donde hay que saber colocar objetivos que impidan la paralización o el abandono, pero que requiere cierto mínimo para no acusar el cansancio o el atosigamiento.

PROPUESTA 2009

Desarrollo del Reglamento de Participación

- Hojas de tramitación.
- Guía de trámites.
- Carta Ciudadana.
- Consejo de Lakuntza y Comisión de Participación Ciudadana.

Desarrollo de Planes:

- Plan de transparencia y acceso a la información.
 - Organización del servicio de atención a la ciudadanía (reparto de labores, organización funcional, materiales...).
 - Análisis y reforma de la página web (información, tramitación, participación, asociaciones, gestor...)

Proyectos concretos:

- Plan Municipal. Elaboración y desarrollo de la primera fase del Plan de participación en la redacción del Plan Municipal.
- Reforma de la herriko plaza. Taller de acción participativa para concretar el diseño y los aspectos básicos.

AL PUEBLO DE LAKUNTZA

Después de año y medio desde que nos responsabilizamos de llevar el Ayuntamiento, quiero exponer mi opinión sobre la gestión económica que se ha llevado a cabo en el ayuntamiento entre 2004-2007.

La anterior legislatura se ha caracterizado por unos ingresos impresionablemente altos, debido a la expansión urbanística del pueblo. Todos los años se han ingresado alrededor de 250.000 euros procedentes de cesiones del 10 % y licencias de obra.

A pesar de los importantes ingresos, en estos cuatro años apenas se han realizado obras relevantes en el pueblo. Las obras que más han costado han sido sin subvenciones o con subvenciones muy deficientes. En definitiva, el dinero que ha entrado fácil se ha gastado igual de fácil, y por lo tanto los altos ingresos y las malas inversiones no se han traducido en un ahorro para el pueblo.

En total se han invertido 1.175.233 euros durante los años 2004-2007, habiéndose conseguido subvenciones por un total de 466.631 euros. Lo que supone un 40% de subvención.

De las inversiones realizadas en la pasada legislatura quiero destacar 2 por su importe y mala gestión.

PISCINAS. 343.130 euros. Subvención 0 euros.
CINE: 138.150 euros. Subvención 75.553 euros.

La primera destaca porque es la mayor inversión de toda la legislatura sin subvención alguna. La segunda por su mala gestión dado que la inversión realizada no cumple con las normativas vigentes (sanidad, seguridad...) y estaba previsto un proyecto que se va a hacer en el año 2009.

Quiero también destacar el gasto realizado de 36.540 euros en asfaltar las calles Estafeta, Maddalen y Mañueta en mayo de 2007 (periodo de elecciones), cuando ya estaba aprobado el proyecto para pavimentar dichas calles.

En el año 2008 hemos invertido un total de 1.005.390 euros, casi tanto como en los cuatro años anteriores. Las inversiones realizadas (escuelas, calles Estafeta, Mañueta, Maddalen, picota, marquesina,...) han sido subvencionadas por un total de 643.080 euros, es decir en un 64 % del total invertido.

Creemos que es posible dotar a Lakuntza de más y mejores infraestructuras mediante esfuerzo inversor, a la vez que se mantienen y mejoran los servicios prestados a los vecinos. Para ello es importante controlar el gasto y gestionar bien las inversiones y sus correspondientes subvenciones. Esa es nuestra responsabilidad y en eso estamos.



*José Ramón Garín Lizarraga,
Lakuntzako alkatea*

LAKUNTZAKO HERRIARI

Udalaren ardura, orain dela urte bat eta erdi hartu genuen. Orain, aurreko legegintzaldian egindako ekonomia kudeaketari buruzko iritzia plazaratut nahi dut.

2004-2007 urteetan diru-sarrerak oso handiak izan dira, azken urteotan herria asko handitu delako. Urtero, 250.000 eurotik gorako diru-sarrerak izan dira, obra baimen eta lurzoruen %10eko lagapenenei esker.

Diru-sarrerak handiak izan arren, ordea, urte horietan ez da obra handirik egin. Gainera, dirurik gehien kostatu duten obrak diru-laguntzarik gabe egin dira, edo diru-laguntza txikiiek. Beraz, erraz sartu den dirua erraz gastatu da; eta horren ondorioz, izan diren diru-sarrerra handiek eta inbertsio kaxkarrek, herriari ez diote aurreztekiko aukerarik eman.

2004-2007 urteen artean, guztira, 1.175.233 euro inbertitu dira; lortutako diru-laguntzak, %40 izan dira: 466.631 euro.

Aurreko legegintzaldian egindako bi inbertsio nabarmendu nahi ditut, diru kantitate handikoak izanik diru-laguntza txikiarekin edo batere izan gabe egin direlako. Honakoak: IGERILEKUAK. Inbertsioa: 343.130 euro. Diru-laguntza: 0 euro. ZINEA. Inbertsioa: 138.150 euro. Diru-laguntza: 75.553 euro.

Lehenengoa nabarmendu nahi dut, diru-laguntzarik izan ez duen legegintzaldiko inbertsio handiena izan delako. Bigarrena, kudeaketa txarragatik; izan ere, egindako inbertsioak ez ditu indarrean dauden arauak betetzen (sanitatea, segurtasuna...), gainera, 2009an eginen den proiektuan aurreikusia zegoen.

Era berean, nabarmendu nahi dut, 36.540 euroko inbertsioa, Estafeta, Madalen eta Mañueta kaleak asfaltatzenten xahutu zena. Kaleak 2007ko maiatzean asfaltatu ziren, hauteskunde garaian. Gainera, aipatu kaleetako zorua jartzeko proiektua onartu berria zen.

2008. urtean 1.005.390 euroko inbertsioa egin dugu, ia aurreko lau urteetan inbertitu den adina diru. Egindako inbertsioak (eskolak, Estafeta, Mañueta eta Madalen kaleetako zorua, pikota, markesina...) 643.080 euroko diru-laguntzarekin egin dira, hau da, %64ko diru-laguntzarekin.

Inbertsioetan ahalegina eginez gero, uste dugu Lakuntzak azpiegitura gehiago eta hobeak eskaini ditzakeela. Horri esker, egungo zerbitzuak mantendu eta hobetu ditzakegu. Horretarako garrantzitsua da gastua kontrolatzeara eta inbertsioak ongi kudeatzea, baita inbertsioei dagozkien diru-laguntzak ere. Horixe da gure erantzukizuna eta horretan dihardugu.



2008. urteari errepasoa

Herriguneko lanak despeditu dituzte

Udal oso pozik dago erdiguneko kaleetan egindako obrarekin. Lanak despeditu dira eta balantze baikorra egin dute.

Obrak iraun bitartean bi batzarre egin dira. Lehenengoa, obra egin aurretik egin zen; eta jendearen harrera oso ona izan zen; izan ere, eskerzu zuten informazioa aurrez eta eskura izatea; gainera, bizilagunek zenbait aportazio interesgarri egin zituzten. Bigarrenetan, obrak bukatutakoan, egon zitezkeen akatsak zuzentzeko.

Ekonomia arloari dago-kionez, oso ongi kontrolatua gastua, kaleak bukatu ahala zertifikazioak egin di-

relako eta udal ordezkariak gain-gainean egon direlako. Gainera, Udalak eraikuntza enpresarekin sinatu zuen akordioari esker, sortutako moldaketak proiektatutako prezioan egin dira. Hala, proiektuan ez zeuden hobekuntzak egin dira: Manueta-ko plazaren urbanizazioa eta elektrizitate kableen lurperatzea.

Udal ordezkariek, eskerrik eman nahi dizkie bizilagunei egitasmoan parte hartu dutelako eta obrek iraun duten bitartean jarraira ezin hobea izan dutelako; aipamen berezia egin diote obra enkargatuari, egindako lan txukunarengatik.



FINALIZADAS LAS OBRAS

El Ayuntamiento ha hecho un buen balance y agradece la colaboración y aportaciones realizadas por el vecindario. La información ha estado al alcance de las personas interesadas, además se han llevado a cabo dos reuniones informativas: una antes de iniciar las obras y otra al finalizar. Por otra parte, el gasto se ha controlado muy bien, y se han conseguido hacer dos modificaciones (soterrar el cableado y urbanización de la plaza), según el precio del proyecto.



Markesinaren oinarria harrizkoa da eta pareta zurez eta kristalez osatuta dago.

Markesina berria

Urriaren azkeneko asteaz geroztik hamaika erabiltzale ditu Lakuntzako lehenengo markesinak. Iruñerako norabidean doazen autobusen zain egoten diren pertsonek erabiltzen dute gehien,

baita ikastolako haurrak ere. Markesina berria Lakuntzako Plazan dago. 16.800 euroko kostua izan du eta 12.500 euroko diru-laguntza jaso du Udalak Nafarroako Gobernuaren eskuak.

NUEVA MARQUESINA

Desde finales de octubre está en funcionamiento la nueva marquesina. Así las usuarias y usuarios del servicio de autobús ya tienen donde cobijarse mientras esperan al autobús. El presupuesto de la marquesina ha ascendido a 16.800 euros, de los que han recibido 12.500 euros de ayuda por parte del Gobierno de Navarra.

AUZOLANAK BERRESKURATU DIRA, HERRIARENDAKO GARRANTZITSUAK DIRELAKO Aurrerabidea, herritarren elkarlanari esker

Aurten egin diren auzoleinei esker herriko hainbat txoko hobetu eta hainbat egitasmo burutu ahal izan dira. Batetik, liburutegia lekuz aldatu eta erreformatu da. Bestetik, herriko kaleetan dauden 20 jardinera herritarren artean egin dira. Eta azkenik, zinea eta ganbazelaia hustu dira.

Horiexek izan dira 2008an egin diren auzolanak, eta aurten ere auzolanekin aurrera jarraitzeko asmoa dago, arrrepausoak emateko herritarren elkarlanaren oso garrantzitsua delako.

Batetik, jardinerak prestatzeko hiru auzolan egin dira. Horietan parte hartu duten lakuntzarrek trabiesak mon-



Kaleetan dauden 20 jardinera auzolanean egin dira

tatu, lotu eta barnizatu dituzte. Egindako lanari esker herriko kaleak edertu ahal izan dira, dirua aurreztuz.

Bestetik, liburutegia lekuz aldatu eta berritu ahal izan da auzolanei esker. Liburutegi zaharrean ez zegoen be-

rogailurik, eta zerbitzua emateko txiki gelditzen zen. Azkenean, borondatezko auzolan batzuei esker, iazko udaberrian mustu zen liburutegi berria.

Azkenik, zineko berrikunta lanak egiteko ezinbeste-

koa izan da barrukoa hustutzea, baita udaletxeko ganbazelaia ere. Aipatu horiek auzolanen bitartez egin ziren. Aurten ere Udalak auzolanekin aurrera jarraitzeko asmoa agertu du.

RECUPERACIÓN DEL AUZOLAN

Durante el año pasado se han llevado varios auzolanos gracias a los cuales, con la labor de todas y todos, se han podido llevar a cabo diferentes proyectos: el montaje de jardineras, la reforma de la biblioteca, el vaciado de la goikoganbara del ayuntamiento y el cine. Todos ellos trabajos necesarios para mejorar entre todos Lakuntza.

Onartu da musika eskolako arautegia

Udala, guraso eta musika eskolako ordezkariek Musika Eskolako arautegia landu du-te. Egindako bileretan estatuak zehaztu dituzte eta barne funtzionamendua arautzen duen araudia onartu dute. Orain, ikasle, irakasle eta gurasoei dagokie onartutako araudia betetzea. Lakuntzako Musika Eskolak 94 ikasle ditu egun.

Estatuto berrien arabera, eskolak bi organo nagusi ditu. Batetik, gobernu batzordea alor ekonomikoaz arduratuko da, baita langileen kudeaketaz ere. Lehendakariak (alkatea edo bere ordez izendatutako zinegotzia), udal talde bakotzeko zinegotziak, zundariak eta idazkaria osatuko dute gobernu batzordea.

Bestetik, kudeaketa pedagogikorako batzordea dago. Batzorde hori plan pedagogikoa arduratzen da, baita antolaketa guztiaz ere. Batzorde hori osatzen dute irakasle, gura-

so eta ikasleek. Batzorde horri dagokio eskolaren filosofiaz eztabaidatzea, hala nola, zer aportatu behar dion musika eskolak herriari. Izan ere, eskolak herrian dauden gabeziak konpontzeko bidea eman beharko luke.

Bukatzeko, irakasleen klaustroa dago. Horrek proposatzen dio kudeaketa pedagogikorako batzordeari beraien ordutegiak, ebaluazioak eta beste.



APROBADO EL NUEVO REGLAMENTO DE LA ESCUELA DE MÚSICA

Representantes del Ayuntamiento y trabajadores y padres y madres del alumnado de la Escuela de Música San Saastin han trabajado sobre el nuevo reglamento de la escuela. Han aprobado los nuevos estatutos, así como el reglamento de funcionamiento interno.

Una vez aprobadas los nuevos reglamentos ya solo queda aplicarlos. La Escuela de Música cuenta con 94 alumnos.

Según los nuevos estatutos la escuela cuenta con dos órganos principales: la comisión de gobierno, que

se encarga de temas económicos y la comisión de gestión pedagógica, que además de temas pedagógicos se encarga de toda la organización de la escuela. El claustro del profesorado propone a ésta última los horarios, calendario de evaluaciones....etc.



2008. urteari errespasoa

Herritarren Eskubideen Karta onartuta

Lakuntzako Udalak Herritarren Eskubideen Karta onartu zuen abenduan. Udaletxeko bilkura aretoan hainbat lakuntzar bildu ziren eta haien leku zirela EAE-ANV-ko sei zinegotziengoei bozei esker onartu zen karta. EA-ko zinegotziak ez ziren bilkuran izan.

Lakuntzako Udalak onartutako kartak bi atal ditu. Batetik, parte hartze araudia. Horren bidez, "udaleko gai publikoetan parte hartze demokratikoa eta gardentasuna sustatzeko konpromisoa argia eta irmoa hartu nahi" duela dio udalak. Eta, bestetik, ekintza plana. Guztia lakuntzarren "parte hartze zabala eta kalitate handiagokoa izateko". Horretan-

Araudi eta plan multzo baten bidez
lakuntzarren "*udaleko gai publikoetan*"
parte hartza sustatu nahi du

rako Lakuntzako Udalak Herritarren Eskubideen Kartak hainbat bitarteko aurreikusten ditu, "pixkanaka garatzen eta Kartan gehitzen joanen direnak".

ARAUDIA

Kartaren baitan jasotzen den Lakuntzako herritarren parte hartze araudia hainbat kapitulutan banatuta dago. Kapituluaren artean dago parte hartze eskubidea zehazten duena. Horretan jasotzen da, besteari beste, herritarrek al-

kateak har ditzan duten eskubidea, informazioa jaso, eskaerak eta proposamenak egiteko eskubideak edota udal bilkuretan hitz egiteko.

Beste kapitulu bat herritar taldeen eta taldeen parte hartzeari eskainia dago. Hartan jasotzen da talde horien udal erregistroa sortuko dela, eta bere ezaugarriak azaltzen ditu. Horretaz gain, erakundeak bilduko dituen Taldeen Ma-haia sortzeko aukera jasoa dago. Baita udalaren web orrian tokia izateko aukera ere.

Hirugarren kapituluak herritarren parte hartzeko prozesuak, organoak eta bideak zehazten ditu. Horien artean daude hain ezagunak diren herri kontsultak. Baina baino Lakuntzako Kontseilua deritzona ere, herri osoari eragiten dioten jarduerak aztertu eta eztabaidatzeko parte hartze organoa. Harekin batera, Lakuntzako Haurren Kontseiluari, Herritarren Parte Hartzerako Batzorde Iraunkorrari, Ekipamenduko Kontseiluari eta Batzorde Bereziei buruzko xehetasunak ematen ditu.

Azken kapituluua informazio, arreta eta komunikazio sistemei eskainia dago. Horretan toki berezia dute teknologia berriek.





PARTE-HARTZALEAK: Biltoki, Lagun Artea Futbol Kirol Taldea, Ehiztariak, Zabalarte, Elai Alai Dantza Taldea, Lakuntzako eskola kontseilua, Luis Fuentes Ikastetxe Publikoko Guraso elkartea, Andra Mari ikastolako Guraso Elkarte, Gure Nahia jubilatu elkartea, parrokoiko junta, Haizea Kultur Elkarte, Lakuntzako Pertza Elkarte, Aralar Txirrindula Taldea, Oilaskoiturri talde ekologista, gazteak, Lakuntzako Abesbatza eta Erraldoi eta Buruhandien konpartsia.

Carta de Derechos Ciudadanos en Lakuntza

En la Carta se integran tanto el Reglamento de Participación Ciudadana, como el Plan de Actuación.

A lo largo del segundo semestre de 2008, se ha desarrollado en Lakuntza un proceso participativo para la elaboración de la Carta de Derechos Ciudadanos de Lakuntza.

Este proceso lo ha puesto en marcha el Ayuntamiento dentro del marco de las ayudas de Calidad e Innovación que dispuso el Gobierno de Navarra. Para el desarrollo de este proceso, el Ayuntamiento contrató a la empresa Biderka Konsulting, SL.

El objetivo de esta fase de trabajo ha consistido en la elaboración de una Carta de Derechos Ciudadanos para Lakuntza, donde se integran tanto el Reglamento de Participación Ciudadana, como el Plan de Actuación.

Para ello se ha trabajado sobre sendos borradores que se han distribuido entre las asociaciones de La-

kuntza. Las siguientes: Biltoki, Lagun Artea Futbol Kirol Taldea, Ehiztariak, Zabalarte, Elai Alai Dantza Taldea, Lakuntzako eskola kontseilua, Luis Fuentes Ikastetxe Publikoko Guraso elkartea, Andra Mari ikastolako Guraso Elkarte, Gure Nahia jubilatu elkartea, parrokoiko junta, Haizea Kultur Elkarte, Lakuntzako Pertza Elkarte, Aralar Txirrindula Taldea, Oilaskoiturri talde ekologista, gazteak, Lakuntzako Abesbatza y la Comparsa de Gigantes y Cabezudos.

Estos borradores se han trabajado en sucesivos talleres de debate hasta alcanzar un consenso en torno a los documentos definitivos. En total han sido 4 talleres. En ellos han participado 25 personas y 12 colectivos. Hay que destacar que el nivel de participación ha sido realmente bueno.



PROCEDURA

Herritarren Eskubideen Karta adosten urte erdia eman dute hainbat lakuntzarrek. Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntzarekin osatu zuen udalak 9.000 euroko aurrekontua eta Biderka Konsulting SL enpresa kontratatu ahal izan zuen. Lakuntzako 19 talde deitu zituzten ekimenean parte hartzen eta haietatik hamarrek baiezkoa eman zuten. Bileretan, bataz beste, dozena bat era-kundeetako 25 herritar bildu izan dira. Bezperan bere

herriko esperientziaren berri eman zuen Azkoengo alkatearendako "parte hartze oso ona da".

Lakuntzako alkateak, bestalde, parte hartzale guztia zoriondu zituen. Esan zuenez, "orain arte gogorrena egin da. Hemendik aurre-ra gauza errealekin ariko gara". Lakuntzarrak parte hartzen jarraitzen gonbidatu zituen. Bestalde, karta adostu eta gero, Lakuntzako parte hartzearren gizarte diagnosia egitea faltako da. Haren bidez, etorkizuneko jarduera plana osatuko da.



2008. urteari erreaspaoa

Medikuaren kontsulta

Medikuaren kontsultan hobekuntza lanak egin dira. Medikuaren eta erizainaren geletako eta komuneko gelako sabai faltsuak kendu eta habeak agerian utzi dira, saneatzeko; izan ere, arazoa zen arratoiak zeudela.

Nafarroako Gobernuari diru-laguntza eskatu dio Lakuntzako Udalak, baina ez du laguntzarik eman. Ondorioz, sabaiko lana eta margoketa lana udal langileek egin dute.



Medikuaren eta erizanairen geletako eta komuneko gelako sabai faltsuak kendu eta habeak agerian utzi dira, saneatzeko

MEJORAS EN EL CONSULTORIO MÉDICO

Los trabajadores de servicios múltiples del ayuntamiento han realizado mejoras en la consulta del médico, de la enfermera y los baños del consultorio.

Se ha quitado el falso techo y dejado al descubierto las vigas, y pintado las paredes. El objetivo ha sido sanear las consultas, porque había ratones.



Almiante berria

Oposaketak egin eta gero, Josu Ducar Astiz, Lakuntzako Udaleko lan kontratadun izendatu dute, zerbitzu anitzetako emplegatuen D mailako lanpostuan aritzeko.

Horrez gain, Babes Empleo Programan sartu da Lakuntzako Udal, beharrak dituzten pertsonei laguntzeko programan, hain zuzen ere. Horrela, 3 lagun kontratatu dira kaleko garbiketak egin eta almiante berriari laguntzeko.

Tras las oposiciones, Josu Ducar Astiz ha sido el candidato que mayor puntuación ha obtenido, así él es el nuevo trabajador de servicios múltiples del ayuntamiento.

Por otra parte, el Ayuntamiento de Lakuntza ha entrado dentro del programa de Empleo Protegido. Gracias al cual tres personas trabajan en la limpieza y asisten a los trabajadores de servicios múltiples.

Hilerrian hainbat hobekuntza egin dira, era-biltzaileen mesederako: kaleak txukundu dira, hezurrak gordetzeko kolunbarioak egin dira eta kolunbarien erabilera arautzen duen ordenanza onartu da.

Hilerri sarreran 28 kolunbario eraiki dituzte. Kolunbario horietan hezurrak gordetzen dira, lurperatuta egoteko epea pasatu eta gero gorpuak jasotzen direnean.

Hilerriko kaleetan lerga jarri da, euria egiten dueñean, loquia ez sortzeko.

MEJORAS EN EL CEMENTERIO

Se han construido 28 columbarios y aprobado la ordenanza del uso de los mismos; y se ha hechado piedra blanca en las calles para acondicionar un poco el acceso de las personas que acuden al cementerio.



Hilerriko lanak



Hobekuntzak eskola publikoan

Lakuntzako Luis Fuentes ikastetxearen egindako hobekuntza lanetan 346.000 euro bideratu dira. Egindako lanei esker, ikastetxeen zeuden oztopo arkitektonikoak kendu dira eta gela berri bat egin da. Gainera, jantokia jarrida, komunak eta aldagela berriatu eta berogailu kalderak aldatu dira. Bigarren solairura igotzeko igogailua paratu dute; sartzeko ate berria ireki dute; eta atari nagusian arlanpa bat egin dute.

Inaugurazio ekitaldian 5. eta 6. mailako ikasleek bertso ba-

tzuk kantatu zituzten, eta esker oneko hitzak izan zituzten bertaratutakoendako: "Zuek egindako lana, zen beharrezkoak, orain izan nahi dugu eskerronekoak", "Zuen aurrean dago, herri honen geroa, gero bildu dezagun uztaroa". Lakuntzako alkate Jose Ramon Garinek irakasle, ikasle eta gurasoei eskerrik eman zizkien izan duten pazientziarengatik; baita Iru Mendi erakaikuntza enpresari, lanak aurreikusitako epean egi-teagatik.

ESCUELA RENOVADA

Gracias a las mejoras llevadas a cabo, 20 escolares comen en el centro. El nuevo comedor comenzó su andadura el 10 de septiembre. La escuela de Lakuntza fue construida en 1958. Así durante todo el curso escolar se han llevado a cabo diferentes actividades para la celebración del 50º aniversario.



**Inaugurazio
ekitaldian:
eraikitzaleak,
arkitektoa,
udaleko eta
Nafarroako
Gobernuko
ordezkariak,
eskolako zuzen-
dariarekin batera.**

udal aldizkaria

LAKUNTZA

18. zenbakia 2008-II



Inauteri alaiak eta partehartzaileak

Inauteriak prestatzeko 2 bilerak egin ziren. Bertan zehaztu zen bi egunetako egitaraua, larunbateko eta asteartekoak. Ihoteetako larunbatean, zinean egin zen herri bazkarian 150 lagunek parte hartu zuten.

Larunbat eguerdian plazan auzatea egon zen. Eta bazkaldu ondoren kuadrilak kalejiran

ibili ziren, gaiteroen musikak alaiturik. Egun osoan oso giro ona izan zen eta eguraldia ere bikaina izan zen. Aipatu behar da urtetik urtera gero eta jende gehiago mozorratzen dela.

Asteartean, zatamarroak ibili ziren eta gurasoak arduratu ziren txokolatadaz eta haurrendako jokuak antolatzearaz.



Aurten ere kultur ille izanen da

Maiatzean hasi eta ekaina bitartean hainbat hitzaldi, erakusketa, ipuin kontalari, dokumental, afari, musika eta kultur ekitaldi izan ziren herrian iaz. Lakuntzako Pertza elkartea, Biltoki gaste elkartea, Gure Nahia Jubilatuaren kluza eta Haizea Kultur elkartearren artean antolatu zuten egitaraua, Udalaren Kultura batzordearekin elkarlanean. Ekinmen horri esker lortu zen herriko elkarretea eta kultur taldeen artean harremana sendotzea eta aurten ere asmoa dago, 2009 Kultur Ille oparoa antolatzeko. Animo, beraz, eta parte hartu! Ideiaren bat proposatu nahi izanez gero, jarri Udala-rekin harremanetan.

